

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1161

EBAZPENA, 2024ko otsailaren 22koa, Hezkuntzako sailburuordearena, udal haur-eskolei 2023-2024 ikasturterako emandako dirulaguntzak jakinarazten dituena.

2023ko abenduaren 18ko EHAA n argitaratu zen Hezkuntzako sailburuaren 2023ko abenduaren 1eko Agindua, 0 eta 3 urte bitarteko haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako 2023-2024 ikasturterako dirulaguntzak iragartzen dituena.

Agindu horren 11.1 artikularekin bat etorriz, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizatua egingo ez zaienik.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko abenduaren 1eko Aginduaren babesean emandako dirulaguntza guztiak eta haien onuradunak jakinaraztea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 22a.

Hezkuntzako sailburuordea,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.

2024ko martxoaren 5a, asteartea

ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

	Udala	Dirulaguntza
Araba	Gaubea	22.171,97
	Vitoria-Gasteiz	1.248.337,58
Bizkaia	Barakaldo	323.588,55
	Portugalete	212.830,92
Gipuzkoa	Andoain	231.915,26
	Aretxabaleta	218.336,03
	Irun	241.061,97
	Oiartzun	212.296,39
	Ordizia	181.660,94
	Pasaia	98.038,39
	Usurbil	247.956,12
EAE		3.238.194,12